



Esp.kodea: 2021KZUD0004

Gaia: ESKATZEA LAGUNTZA EKONOMIKOA  
Hasiera eguna: 2021/07/05

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

### “Goienagusi: dirulaguntza eskaera (2021KZUD0004)”

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kultura eta Euskara Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Goienagusi elkarteak (CIF G75046045) hamar urte betetzera doala eta dirulaguntza eskaera aurkeztu du urteurrena ospatzeko jarduerak antolatu ahal izateko; horien artean daude, hainbat jarduera, kultura ekintzak, webgunea egitea, etab.

Gaia aztertu ondoren Kultura eta Euskara Batzordeak akordio hau hartzea proposatu du:

Goienagusi elkarteari 800 euroko laguntza ematea –zuzeneko dirulaguntzak partidaren kontura 1.02.00.481.334.01.00– hamargarren urteurren ospakizuneko kultur emanaldia antolatzeko. Dirulaguntza horrela ordainduko da:

- 1.- Dirukopuru honen %60, 480 euro, akordioa hartu eta epe laburrean.
- 2.- Gainerako %40, 320 euro, ekintza zehatza burutu ondoren. Horretarako, aurkeztuko dute, ekitaldiak sortutako gastu eta sarreren zerrendarekin batera, jarduera zehatzaren faktura.
- 3.- Goienagusiri 30 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, Udalari adierazteko agindutako diru laguntza onartzen ote duen; epe horren barruan kontraktorik adierazi ezean, ulertuko da implizituki onartzen duela. Laguntza onartzen duela adierazteko bidal dezake Kultura sailera mezu elektroniko bat.”

*Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

<b>Kodea</b>	BB21/01102	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/urr./04	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAMS2P.6.1Jlg
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2P6.1Jlg">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2P6.1Jlg</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





**Esp.kodea:** 2021KZUD0004

**Gaia:** ESKATZEA LAGUNTZA EKONOMIKOA  
**Hasiera eguna:** 2021/07/05

*Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Anzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurso aurkeztu dezakezu.*

Idazkaria

GOIENAGUSI ELKARTEA, Jose Maria Eraña. Altamirazpi 5, beh  
AP CORREOS 4  
20500 ARRASATE/MONDRAGON

<b>Kodea</b>	BB21/01102	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/urr./04	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAMS2P.6.1Jlg
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2P6.1Jlg">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2P6.1Jlg</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

